

BARRUALDE-GALDAKAO ESI

410/2014 EBAZPENA, maiatzaren 26koa, Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentearena, Susana Martín Benavides andreari Barrualde-Galdakao ESIko Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuaren funtzioak esleitzeko dena.

83/2014, otsailaren 24koa (2014ko martxoaren 20ko EHAA) Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen Barrualde-Galdakao ESIko Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako Unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Susana Martín Benavides andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: Barrualde-Galdakao ESIko Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion funtzioak esleitzea pertsona horri.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBATZI DUT

Lehena.- Susana Martín Benavides andreari esleitzea Barrualde-Galdakao ESIko Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion funtzioak.

Bigarrena.- Susana Martín Benavides andreak kudeaketa- eta asistentzia-lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki osasun-eskualdeko gerenteararen ardurapean. Bai Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak garatu bitartean bai hauek amaitzean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta hari lotutako oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.- Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.- Interesdunak, funtzio horiek betetzen dituen bitartean, ardura bereziko osagarria kobratuko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Dekretu Legeak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta bere zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean ezarrita daude.


Bosgarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2014ko ekainaren 1a.

Seigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakaon, 2014ko maiatzaren 26an

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendaria gerentea
JON GUAJARDO REMACHA



OSI BARRUALDE-GALDAKAO

RESOLUCIÓN 410/2014, de 26 de mayo, del Director Gerente de la OSI Barrualde Galdakao, por la que se asignan las funciones de Jefa de Unidad de Atención Primaria de Arrigorriaga, OSI Barrualde-Galdakao a D^a Susana Martín Benavides.

Mediante Resolución 83/2014, de 24 de febrero (BOPV de 20 de marzo de 2014), se aprobó convocatoria pública para la designación de Jefa de Unidad de Atención Primaria de Arrigorriaga, OSI Barrualde-Galdakao.

Efectuada por la Comisión la valoración de las solicitudes presentadas así como la correspondiente propuesta de asignación, y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en D^a Susana Martín Benavides procede asignarle las funciones de Jefa de Unidad de Atención Primaria de Arrigorriaga, OSI Barrualde-Galdakao.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre,

RESUELVO

Primero.- Asignar a D^a Susana Martín Benavides las funciones de Jefa de Unidad de Atención Primaria de Arrigorriaga, OSI Barrualde-Galdakao.

Segundo.- D^a Susana Martín Benavides ejercerá la doble función gestora y asistencial en dependencia directa y jerárquica del Gerente de la Comarca Sanitaria. Tanto mientras desarrolle las funciones de Jefa de Unidad de Atención Primaria, como cuando estas finalicen, conservará la titularidad de la correspondiente plaza básica de su categoría, cuyas funciones básicas continuará desempeñando.

Tercero.- La presente asignación en ningún caso supondrá la consolidación de las funciones ni las retribuciones de Jefa de la Unidad de Atención Primaria como puesto específico de trabajo, pudiéndose acordar discrecionalmente la finalización de la asignación de dichas funciones.

Cuarto.- La interesada percibirá, mientras desempeña dichas funciones, un complemento de especial responsabilidad, incardinado en el complemento específico regulado por el Real Decreto Ley 3/1987, cuyas cuantías y características se determinan en el anexo I del Decreto 195/1996, de 23 de julio.

Quinto.- El presente nombramiento surtirá efectos el 1 de junio de 2014.

Sexto.- Notifíquese la presente resolución a la interesada.

Séptimo.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

En Galdakao, a 26 de mayo de 2014.



Osakidetza
BARRUALDE-GALDAKAO ESI
OSI BARRUALDE-GALDAKAO
ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE

El Director Gerente de la OSI Barrualde-Galdakao
JON GUAJARDO REMACHA